

Mondragon Unibertsitateak Enpresagintzako azken ikasturteko 60 ikasle bildu ditu Oñatin Lanbide Orientazioari buruzko Jardunaldi batean.

2012/11/22

Graduaren azken urtean ikasleek zalantza ugari izaten dituzte, batetik, azterketen eta gradu amaierako proiektuaren ondorioz eta, bestetik, behin ikasketak amaitu ostean beren lanbide-etorkizuna bideratzeko dituzten aukeren ondorioz. Izan ere, hainbat aukera dituzte: besteren konturako enplegu bat bilatzea, ekintzailtzaren alde egitea edo lana nazioartean bilatzea.

Mondragon Unibertsitateak, atzo, Enpresagintza Fakultateko Enpresen Administrazioako eta Zuzendaritzako –kanpusa Oñatin eta Bidasoan dute– eta Lidergo Ekintzaileko eta Berritzaileko 60 ikasle bildu zituen Lanbide Orientazioari buruzko Jardunaldian.

Topaketak, goizeko 9:30ean hasi eta 16:30ean amaitu zirenak, enpresaren mundua gerturatu zieten ikasleei, ekimen arrakastatsuen azalpenen bitartez, eta enplegua bilatzeko orduan hartu beharko dituzten erabakietarako lagungarri izango zaie.

Gainera, ikasleei curriculuma nola idatzi eta lan-elkarrizketa bati nola aurre egin aholkatzeko balio izan zuen.

Jardunaldia

Jardunaldia 9:30ean hasi zen, parte-hartzaileei eginiko ongietorriarekin. Horren ostean, 9:35ean, lehenengo hitzaldia eskaini zuen Mikel Mesonerok, Enpresagintzako koordinatzaile akademikoak, "Y ahora qué?" (Eta orain zer?) izenburupean. Bertan, tituludunek dituzten lanbide-aukerari buruz hitz egin zuen.

Hitzaldiaren ostean, Ekintzailearen Euskal Elkargoko arduradun Iluminada Apariciok, 9:50etaik 10:30era, lan-merkatuaren aurrean dauden titulazio-aukerak azaldu zituen. Ondoren, eta 11:00k arte, MU Lanbideko Jose Manuel Bergaretxek eta Karnele Mancisidorrek Lanbide-MU orientazio-zerbitzua aurkeztu zuten.

"Emprendizaje: Promoción de un nuevo sector de actividad" (Ekintzailtza: jarduera-sektore berri baten sustapena) izenburudun hitzaldiarekin hartu zuen parte Mónica Nuñezek, Mondragon Healtheko finantza-zuzendari eta idazkari teknikoak. Juan Izetaren, Eslite-Managed Learning Solutions-Grupo Alecop-eko gerentearen hitzaldia honako gai honi buruzkoa izan zen: "¿Hay vida más allá de Euskadi? Mi experiencia internacional" (Bada bizitzarik Euskaditik kanpo? Nire nazioarteko esperientzia). Horrela bertaratuek lanbide-karreraren eta ekintzailtzearen beste herrialde batzuek eskaintzen dituzten aukerak ezagutu ahal izan zituzten.

12:30ean hasi zen ISEAko ikertzaile Gorka Carvalloren hitzaldia: "Mi experiencia en el ámbito de la gestión de la innovación: Experiencia de un Licenciado en Administración y Dirección de Empresas por MU" (Nire esperientzia berrikuntzaren kudeaketaren alorrean: MUren Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan Lizentziaturiko ikasle baten Esperientzia).

14:30etatik aurrera, bi hitzalditara joateko aukera izan zuten bertaratuek: Batetik, "Cómo redacto un CV? ¿Cómo afronto la entrevista de trabajo?" (Nola idatzi CVA? Nola aurre egin lan-elkarrizketa bati?) izenburudun Lanbideko Ainhoa Cendoyaren hitzaldia izan zuten. Bestetik, eta topaketari amaiera emateko, LKS Selección y Formación-eko zuzendari nagusi Aitor Perezen hitzaldia izan zuten, "Cómo se desarrollan los procesos de selección" (Nola garatzen dira hautaketa-prozesuak) gaiari buruzkoa. Jardunaldia 16:30ean amaitu



zen.